



EBAZPENA, 2022KO MAIATZAREN 18(E)KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, 2022-2023 IKASTURTERAKO BERRITZEGUNE NAGUSIAN HAINBAT LANPOSTU —ZERBITZU-EGINKIZUNEN EDO, HALA BEHAR BALITZ, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEN ERREGIMENEAN— BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA.

Deialdi honen xedea da Berritzegune Nagusian hainbat lanpostu betetzea 2022-2023 ikasturtean, Hezkuntza Sailburuordetzak hala eskatuta.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Honako hauetan arautzen da: azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatutako 6/1989 Legearen 54. artikuluan (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuko 12. artikuluan (185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleen lan-baldintzak onartzen dituen hitzarmena onartzen duena). Figura hori funtzionarioei izango zaie aplikagarria.

Lan-kontratudun langileei dagokienez, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena) 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzen jotzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horiek horrela, eta aintzat hartuta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoa, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da I. eranskinean zerrendatzen diren lanpostuak betetzea 2022-2023 ikasturterako.

Funtzionarioei dagokienez, lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez beteko dira.

Lan-kontratudun langileei dagokienez, lanpostuak behin-behineko esleipenaren bidez beteko dira.

Bigarrena. - Laguntzaileen eginkizunak eta profila

1. Laguntzaileek bete beharreko eginkizunak Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen otsailaren 7ko 40/2009 Dekretuak 5. artikuluan ezarritakoak dira.

Urteko jarduera-planak garatzean osagarritasuna eta koordinazioa lortzeko, laguntzaileek beren eginkizunak unibertsitatez kanpoko edozein hezkuntza-etapatako irakasleak eta Hezkuntza Sailburuordetzak zehazten dituen alderdiak aintzat hartuta betetzeko aukera izan behar dute.

2. Profilarik dagokionez, izangaiek honako gaitasun hauek izan behar dituzte:
 - a) Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema, laguntza-zerbitzuak eta Hezkuntza Sailaren egitura ezagutzea, bai eta horien arau-esparruak ere.
 - b) Beren lan-esparruko metodologia eta didaktika espezifikoen ezagutza aditua.



- c) Plangintzarako eta dinamizaziorako gaitasuna; izan ere, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztien partaidetza ahalbidetzen duten tresnak baitira.
 - d) Talde-lanean jarduteko gaitasuna.
 - e) Irakasleak beren hezkuntza-jardunari buruzko ikerketa egitera motibatzeko gaitasuna.
 - f) Ezagutza eraikitzeko gaitasuna, negoziazioaren eta laguntzaren bidez, hezkuntza-jardunari buruzko hausnarketatik abiatuta; eta ezagutza hori irakasleei helarazteko gaitasuna.
 - g) Beren eginkizunak modalitate presentzian, erdipresentzian edo urrutikoan garatzeko trebetasuna, honako hauetan zuzenean parte hartuta: ikastaro presentzialak, erdipresentzialak eta sarekoak, materialak prestatzea eta hitzaldiak ematea eta tutorizazioa.
 - h) Proiektuen buru izateko gaitasuna, metodologia arinak aplikatuz, lantaldeko kideak koordinatuz eta gidatuz helburuei eta zaintza- eta ikerketa-jardueri dagokienez, eta, batez ere, erakundeen, bazkideen eta inplikaturako bestelako eragileen arteko harremanen koordinazioaren buru izatea.
 - i) Hainbat erakunderen eta ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzeko gaitasuna, ezagutzaren trukea sustatuz.
 - j) Plangintza estrategikoak eta urteko planak egiteko gaitasuna.
 - k) Bere eginkizunak gauzatzean, leku batetik bestera joateko prestasuna.
 - l) Laguntzailearen profilaren definizioak ez du esan nahi aholkularitza-lanak haren jakintza-eremuan edo sartzen den etapan soilik gauzatu beharko dituenik.
3. Era berean, I. eranskinean jasotzen dira eskaintzen den lanpostu bakoitzeko gaitasun espezifikoak eta teknikoak.

Hirugarrena. - Eskakizunak.

- a) Eskatutako lanpostuaren arabera dagokion Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-kidegoko karrerako funtzionario izatea, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoarekin bat.
- b) Halaber, bitarteko funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baina karrerako funtzionarioek izango dute lehentasuna.
- c) Maila horietan lan-kontratu iraunkorra duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.
- d) Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboan egotea edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretako batean (eginkizun-gabetzea izan ezik) egotea eskaera egiten den egunean.
- e) Era berean, zerbitzu berezietan edo borondatezko eszedentzian daudenek ere parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez jarduneko zerbitzura itzulita, betiere horietan gutxienezko epea bete badute.
- f) Ebazpen hau argitaratu den egunera bitartean, deialdi honetan deitutakoez bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behinen-behineko esleipenaz, 2022-2023 ikasturterako.
- g) Euskarako 2. HE (deialdi hau argitaratzen denean mugaeguneratutako ziurtagiria)
- h) Irakaskuntzarako gaitzen duen titulazioa.
- i) A1 azpitaldeko eta/edo A2 azpitaldeko kide izatea.
- j) Ebazpen honen I. eranskinean ezarritako gainerako betekizun espezifikoak.

Laugarrena. – Kanpoan uzteak eta uko egiteak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira IRALE programak 2022-2023 ikasturterako liberatu dituenak.

Zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleitu ondoren, oro har, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea amaitu arte.

Bosgarrena. – Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epea.

1. Eskabideak formalizatzea:

Izangaiek HEZIGUNE atariaren bidez aurkeztu beharko dute eskabidea (<https://hezigunea.euskadi.eus>) banner honen bidez: “Zerbitzu-eginkizunak: BERRITZEGUNE NAGUSIA”. Aldez aurretik eskatzaileak identifikatu egin beharko du bere burua (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea halakorik edukiz gero)

2. Epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 19(e)(a)n hasiko da eta maiatzaren 25(e)(a)n amaituko da, biak barne.

Seigarrena. – Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabidearen eredu ofizialarekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

1. I. eranskinean eskatzen diren betekizun espezifikoak: horien egiaztagirak
2. Adierazitako merezimenduak: egiaztagiri ofizialak. Ez dira baloratuko eskabidearekin batera adierazi ez diren merezimenduak, ezta eskabidean jaso arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere. Administrazioan behar bezala egiaztatuta dauden merezimenduak adierazi egin beharko dira, eta gainerakoak dagozkien agirien bidez egiaztatuko dira.

Zazpigarrena. – Balorazio-baremoa.

Eskatzaileen merezimenduak deialdi honetako II. eranskinean argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen honen argitaratze-datara arte hobetutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko.

Prozesutik kanpo geratuko dira memoriaren defentsari eman dakioken puntuazioaren % 50 gutxienez lortu ez dutenak.

Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratzuz eta atalek baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

Zortzigarrena. – Balorazio-prozesuaren faseak:

1. Egiaztatzea izangaiek betetzen dituztela haiek bete nahi dituzten lanpostuetan eskatzen diren betekizunak. Egiaztatze hori Hezkuntza Sailaren Langileriaren Kudeaketa Zerbitzuek egingo dute, deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera.
2. I. eranskinean jasotako gaitasun tekniko eta espezifikoetarako buruzko memoriaren ahozko defentsaren balorazioa. Eskatutako lanpostu bakoitzerako memoriaren ahozko defentsa garatzeko, III. eranskinean jasotako jarraibideei jarraitu beharko zaie.

Memoriaren ahozko defentsa baloratzeko, batzorde tekniko bat edo gehiago eratuko dira, aurkeztzen diren izangaien kopuruaren arabera. Balorazio-batzorde teknikoa edo -batzordeak berrikuntzaren arloko hiru lurralde-arduradunek edo haiek eskuordetzen dituztenek osatuko dituzte.

Balorazio-batzorde teknikoa edo -batzordeek, beharrezkotzat joz gero, aholkulari tekniko adituen laguntza jasoko dute defentsak baloratzeko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoak lantzerantz mugatuko dira, eta arlo horiei dagokienean soilik lan egingo dute balorazio-batzordearekin.

3. Merezimenduen balorazioa: balorazio hori Hezkuntza Saileko honako zerbitzu hauetan egingo da: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Aniztasunerako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza. Jarraian, fase bakoitzeko balorazioak balorazio-batzordeari helaraziko zaizkio.

Bederatzigarrena. – Balorazio-batzordea:

Deialdian eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak balorazio-batzorde teknikoak baloratuko ditu, bai eta zortzigarren puntuan aipatutako zerbitzuek ere, bakoitzak dagokion atalean.

Zortzigarren puntuan aipatutako balorazio-batzorde teknikoaz gain, balorazio-batzordea osatuko da ebazpen-proposamena egin dezan. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

Batzordeburua:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Batzordekideak:

- Berritzegune Nagusiko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako teknikari bat.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.

Era berean, balorazio-batzordean egon ahal izango da sektorean behar besteko ordezkari duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana, hitzarekin baina botorik gabe.

Hamargarrena. – Behin-behineko ebazpena:

Balorazio-prozesua amaitu ondoren, balorazio-batzordeko batzordeburuak deialdi honen ebazpen-proposamena helaraziko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, deialdiaren behin-behineko ebazpena eman dezan. Ebazpen horretan, onartutakoak, baztertutakoak eta izangai bakoitzari emandako puntuazioa agertuko dira.

Behin-behineko ebazpena eta zerrendak departamentu honetako helbide honetan argitaratuko dira, interesdunek jakin dezaten: <https://hezigunea.euskadi.eus>.

Ebazpena argitaratu ondoren, erreklamazioak aurkezteko hiru egun balioduneko epea zabalduko da.

Hamaikagarrena. – Behin betiko ebazpena.

Erreklamaziorik ez badago edo egon daitezkeenak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak behin betiko ebazpena argitaratuko du. Ebazpen horrek izangai bakoitzari emandako azken balorazioa, hautatutako behin betiko zerrenda, baztertutakoena eta hutsik gera daitezkeen lanpostuen zerrenda bilduko ditu. Deitutako lanpostuak ezingo dira hustzat jo eta bete gabe utzi izangaiek lanposturako betekizun guztiak betetzen badituzte, balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa barne.

Behin betiko ebazpena eta zerrendak departamentu honetako helbide honetan argitaratuko dira, interesdunek jakin dezaten: <https://hezigunea.euskadi.eus>

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hamabigarrena. – Ordezkapenen zerrenda.

1. Gutxieneko puntuazioa gainditu baina hautatuak izan ez diren pertsonen poltsa bat osatuko dute lanpostu bakoitzean, merezimenduen baremazioan lortutako

puntuazioaren arabera. Deialdi honi buruzko ebazpena eman ondoren sor litezkeen lanpostu hutsak betetzeko izango da poltsa hori.

2. Aldi baterako beharrak estaltzeko ordezkapenei dagokienez, 2012ko abuztuaren 27ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duenak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hamahirugarrena. – Izendapena eta luzapenak.

1. Hautatutako izangaiak 2022-2023 ikasturtea amaitu bitartean izendatuko dira dagokien lanpostuan, baldin eta hurrengo ataletan jasotako inguruabarretakoren bat gertatzen ez bada. Kasu horretan zerbitzu-eginkizuna baliogabetu egingo da:
 - a) Zerbitzu-eginkizunak emateko, ezinbestekoa izango da eskubide hobea duten langileek lanpostuak arauz ez betetzea.
 - b) Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badituzte horiek garatu deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.
2. Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboa ez den bestelako administrazio-egoeran badago, zerbitzu-eginkizunerako izendapena edo behin-behineko esleipena lanean berriz hastearen mende egongo da; pertsonak berehala hasi beharko du lanean, eta aldi berean emango zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Berehala hasten ez bada, bere eskubidea galduko du eta puntuazio handiena duen hurrengo pertsona hautatuko da.
3. Praktiketako funtzionarioek, berriz, zerbitzu-eginkizun bat eman dakien, 2022-2023 ikasturtean karrerako funtzionario izan beharko dute.
4. Lan-kontratudun langileen kasuan, lanpostu horiek behin-behineko esleipenaz beteko dira, 2022-2023 ikasturtea amaitu arte. Hala ere, a) eta b) apartatuetan adierazitako irizpideak aplikatu ahalko zaizkie.
5. Era berean, bitarteko langileei edo ordezkapeneterako izangaien zerrendetan inskribatuta daudelarik hautatuak gertatzen diren langileei 2022-2023 ikasturtea amaitu arte emango zaie lanpostua. Hala ere, a) eta b) apartatuetan adierazitako irizpideak aplikatu ahalko zaizkie.
6. Epe hori igarotakoan, Hezkuntza Administrazioak egindako balorazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena hurrengo ikasturteetan luzatu ahalko du, horretarako ezartzen den prozeduraren arabera, betiere lanpostuak ez badira betetzen a) eta b) apartatuetan adierazitakoarekin bat etorritik.

Hamalagarrena. – Ordainsariak.

Hautatutako pertsonak zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetzen duten lanpostuari dagokion ordainsaria jasoko dute.

Hamabosgarrena. – Lan-baldintzak:

Hautatutako langileek destinoko ikastetxean ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dute. Langile horiei Hezkuntza Saileko irakasleen lan-baldintzei buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko zaie.

Hautatutakoek ezin izango dute parte hartu ordu-liberazioa behar duten euskalduntzeko ikastaro luzeetan. Halaber, ezin izango dute ordu-liberazioa behar duten bestelako ikastaroetan parte hartu dagokion sailburuordetzaren berariazko baimenik gabe.



Hamaseigarrena. – Datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Langileen kudeaketa.

- Arduraduna: Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza.
- Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileak kudeatzea.
- Legitimazioa:
 - Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
 - 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.
 - 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
 - Estatuko Administrazioiko beste organo batzuk
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: Gure webgunean kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml
- Araudia:
 - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

Hamazazpigarrena. – Ordezko araudi aplikagarria.

Prozedurari dagokionez agindu honetan arautu gabeko kasuetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoa aplikatuko da.

ERREKURTSOAK

Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiok Zerbitzu Administrazioiko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 18(e)(a)n

Blanca Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL



I. ERANSKINA

LANPOSTUAK, BETEKIZUN ETA GAITASUN ESPEZIFIKOAK, TEKNIKOAK ETA JARRERAZKOAK

LAGUNTZAILEAK LIDERGO PEDAGOGIKOAN, HEZKUNTZA-ZUZENDARITZAN ETA KUDEAKETA AURRERATUAN

- 3 lanpostu Bilboko egoitzan.
- 2 lanpostu Lasarte-Oriako egoitzan.
- 1 lanpostu Vitoria-Gasteizko egoitzan.

Betekizun espezifikoak:

- EAEko unibertsitatez kanpoko zentro publiko batean zuzendaritza-talde bateko kide gisa gutxienez lau urteko esperientzia izatea.

Gaitasun espezifikoak/teknikoak:

- Zuzendaritza-taldeen prestakuntza-programa indartzea, zehaztea eta eguneratzea, ebidentzia eta esperientzia egiaztatuetan oinarritutako prestakuntza-estrategia eta ikuspegi berriak txertatuz.
- Ikastetxeetako hezkuntza-lidergorako eta zuzendaritzetarako talentua erakartzeko sistema bat diseinatzea, garatzea eta ezartzea, ikastetxeetako zuzendaritzetan planifikatutako txandakatzea eta birsortzea ahalbidetuko duena.
- Mundu-mailan kudeaketa aurreratua eta eraginkorra eta lidergo transformazionala bultzatzen duten estrategia eta ereduakin lotutako jardunbide egokiak identifikatzea, aztertzea eta egokitzea, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea eta inplikazioa hobetuko dutenak eta ikasleen errendimenduan eragina izango dutenak.
- Ikastetxeekin lankidetzan aritzea estrategia, pertsonak, aliantzak, baliabideak eta prozesuak kudeatzeko eredu aurreratu, jasangarri eta ekitatiboetan, pertsonenganako konfiantzan, autonomian eta taldeak autokudeatzeko gaitasunean oinarritutako bikaintasun-ereduak ezartzeko eta garatzeko.
- Ikastetxeen egitura osoari ezagutza esanguratsua transmititzeko beharrezkoak diren prozedurak ezartzea, sareko lana indartuz, barnekoa zein kanpoko.
- Ikastetxeetako zuzendaritzetan inplikaturako pertsonen jarraipena egitea, haien beharrei eta eskakizunei erantzuteko, lidergo pedagogikoko eta transformatzaileko zereginean laguntze aldera.
- Ikastetxe publikoko zuzendaritza-taldeen arteko lankidetzaren sortzea eta bultzatzea, esperientziak partekatzeko, elkarrekin hausnartzeko eta topaketa-esparruak izango dituzten proposamenak egiteko hezkuntza-kudeaketako hainbat eremutan.
- Joerak hautematea eta aztertzea eta lidergo pedagogikoaren, hezkuntza-zuzendaritzaren eta kudeaketa aurreratuaren esparruan ikastetxeek dituzten beharrak hautematea.



LAGUNTZAILEAK IRAKASKUNTZA-GAITASUNETAN, CURRICULUM-GARAPENEAN ETA IKASKUNTZA-METODOLOGIA ETA –INGURUNEETAN

- 12 lanpostu Bilboko egoitzan.
- 6 lanpostu Lasarte-Oriako egoitzan.
- 5 lanpostu Vitoria-Gasteizko egoitzan.

Betekizun espezifikoak:

- Funts publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle gisa gutxienez lau urteko esperientzia izatea.

Gaitasun espezifikoak/teknikoak:

- Irakasleen beharrak detektatzeko eta ikastetxeen behar eta ezaugarrietara egokitutako prestakuntza-proposamen zehatzak egiteko gaitasuna.
- EAEko ikastetxeetan garapen profesionaleko praktika onak detektatu eta horiei balioa ematea.
- Ikastetxeen arteko foroak eta sareak bultzatzea garapen profesionalerako eta planak eta estrategiak diseinatzea irakasleen etengabeko garapen profesionalean norbanakoaren erantzukizuna areagotzeko.
- Irakasleen autoebaluazio profesionala bultzatzea eta ahalbidetzea.
- Curriculum behar bezala lantzeko beharrezkoak diren kompetentziak hautemateko prozesuak bultzatzea: kontzeptu-esparru partekatuak eta paradigma eguneratuak, curriculumaren ezagutza, ebidentzietan oinarritutako metodologiak, prestakuntza-ebaluazioa...
- Hezkuntza-programa esperimentalak diseinatzea eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailari proposatzea ikastetxeetan garatzeko, aholkuak emanaz eta esperientzia horiek ebaluatuz eta, hala badagokio, orokortuz.
- ISEI-IVEIk egiten dituen ebaluazioetan laguntzea, egiaztatzeko irakaskuntzaren emaitzak indarrean dagoen hezkuntza-araudian ezarritako xedeekin bat datozen.
- Ikaskuntza-prozesuak diseinatzea eta esperimentatzea esparru inklusibo baten barruan, gaitasunen ikuspegiaren arabera.
- Elkarlaneko ikaskuntza-ereduaren sareko hedapena eta transferentzia diseinatzea eta garatzea, euskal hezkuntza-sisteman beharrezkoak diren metodologia-aldaketak ezartzeko.
- Zientziei, teknologiari, ingeniartzari, matematikei, sormenari eta baloreei dagokien STEAM estrategia bultzatzea ikaskuntza-prozesu espezifiko bidez, eta sustatzea genero-berdintasunarekiko interesa eta neska eta neska gazteak irakasgai horietara hurbiltzea.
- Irakasleentzako prestakuntza-programak diseinatzea, bultzatzea eta garatzea, gaitasunen ikaskuntzak garatzean metodologia aktiboak eta lankidetzakoak ezartzeko.
- Teknologia eta ekipamendu aurreratuak identifikatzea, aztertzea eta haiek in esperimentatzea, ikaskuntza-prozesuen azeleratzaile gisa ezartzeko.
- Ikastetxeetako ikasgelak eta espazioak metodologia berrien beharretara egokitzeko eraikuntza-soluzioak, ekipamenduak eta altzariak aztertzea, diseinatzea eta esperimentatzea.
- Antolamendu-eredu berrien esparruan ikaskuntza-egoerak diseinatzea eta esperimentatzea.



LAGUNTZAILEA BIZIKIDETZAREN ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ESPARRUKO BERRIKUNTZAN

- 7 lanpostu Bilboko egoitzarako
- 3 lanpostu Lasarte-Oriako egoitzarako
- 1 lanpostu Gasteizko egoitzarako
- 3 lanpostu aldeztu aurretik egoitza gabekoak (lurraldea zehaztuko da plazak esleitu ondoren, esleipendunek adierazten duten lehentasunaren arabera, Berritzegune Nagusiaren egoitzen artean)

Betekizun espezifikoak:

- Funtz publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle gisa gutxienez lau urteko esperientzia izatea.
- Aurretik egoitza gabeko 3 lanpostuetarako: psikologian, pedagogian edo psikopedagogian graduatua edo baliokidea.

Gaitasun espezifikoak/teknikoak:

- Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta tresnak ematea, **berdinen arteko tratu txarrei eta eskola-jazarpenari** buruzko prebentzio-jarduerak egin ditzaten, ikastetxeak bizikidetzaren positiboko eta zero tolerantziako espazio seguruak izan daitezzen jazarpen egoeretan, eta helburu horiek lortzeko proiektuak zuzentzea eta sustatzea.
- Ikasle guztien **ongizate emozionala** lortzen laguntzea, eta, horretarako, ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta tresnak ematea curriculum sozio-emozional propioa garatzeko, beren buruaz beste egiten duten jokabideetan prebentzio, detekzio eta esku-hartze jarduerak egin ditzaten.
- Ikastetxeak prestakuntzaz, aholkularitza eta tresnez hornitzea, **hezkidetzaren** eskolaren eredu bultzatzeko, genero-ikuspegia bere kulturaren, politikan eta praktikan txertatzeko, eta indarkeria matxistari eta haurtzaroko eta nerabegaroko indarkeriari aurre hartzeko, garaiz antzemateko eta erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzen laguntzeko.
- Ikastetxeetan **kulturartekotasuna** sustatzeko proiektuak bultzatzea, kulturen arteko begirunea bultzatzeko, norberaren kultura besteen kulturaren ekarpenekin aberasteko eta kulturen arteko kidetasunetan eta ikaskuntzara bideratutako elkarrizketan oinarritutako baterako proiektuak partekatzea.
- **Kalteberatasun-egoeran** dauden ikasleak dituzten ikastetxeetan, **hezkuntza-arrakasta ahalbidetzen duten proiektuak** bultzatzea, ikuspegi inklusibo batetik abiatuta.
- Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta tresnak ematea honako arlo hauetan: **orientazio** akademikoa eta profesionala, tutoretza, aniztasunari erantzutea, eta bizikidetzaren.



LAGUNTZAILEA NAZIOARTEKOTZEAN

- 1 lanpostu Lasarte-Oriako egoitzan.

Betekizun espezifikoak:

- Ingeleseko C1
- Funts publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle gisa gutxienez lau urteko esperientzia izatea.

Gaitasun espezifikoak/teknikoak:

- Hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzea nazioartekotze-prozesu guztien erronka handiei eta onurei buruz.
- Nazioartekotze-estrategia garatzea, bermatzeko nazioarteko osagaia ikerketa-, zaintza-, proiektuen garapen-, transferentzia- eta komunikazio-jarduera guztietan txertatuko dela, eta beste herrialde batzuekin lankidetzaren sareak ezartzea.
- Euskal hezkuntza-sistemako ikastetxeetan nazioartekotze-estrategiak garatzeko ekimenak ahalbidetzea eta babestea, prestakuntzarako eta irakasle eta ikasleen trukeerako proiektuak bultzatzeko.
- Nazioarteko proiektuetan parte hartzea, enpresekin, bitarteko eragileekin eta beste erakunde batzuekin batera.
- Konpetentzia-prestakuntza ematea laguntza-zerbitzuetan zein ikastetxeetan nazioarteko proiektuak garatzeko lanean ari diren edo horretarako interesa duten pertsonen.
- Parte-hartze aktiboa izatea nazioartekotzearekin lotutako biltzar eta konferentzietan.
- Gure hezkuntza-sistema nazioartean ikusaraztea, beste hezkuntza- eta gizarte-eragile batzuekin batera, eta, horretarako, lankidetzaren sareetan, komunikabideetan eta nazioarteko sare sozialetan presentzia eta lidergoa izatea.



LAGUNTZAILEA EUSKARAN, ELEANIZTASUNEAN eta KULTURARTEKOTASUNEAN

- 5 lanpostu Bilboko egoitzan.
- 2 lanpostu Vitoria-Gasteizko egoitzan.
- 1 lanpostu Lasarte-Oriako egoitzan.

Betekizun espezifikoak:

- Funts publikoekin sostengatutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle gisa gutxienez lau urteko esperientzia izatea.

Gaitasun espezifikoak/teknikoak:

- Ikastetxeei aholkularitza ematea hizkuntza-eta komunikaziorako gaitasun-arloko curriculum-proiektuaren garapenean, Hizkuntza Proiektuaren bidez ezartzeko.
- Ikastetxeei aholkularitza ematea, euskara eta euskal kultura ardatz dituzten eta hizkuntzen tratamendu integrala eta integratua barne hartzen duten hizkuntza-proiektu eleaniztunak eta kulturantzunak diseinatu eta ezartzeko.
- Ikasgeletan metodologia berritzaileak ezartzea xede duten hezkuntza eleaniztuneko eta kulturantzuneko programak bultzatzea, hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko prozesuak hobetzeko hizkuntzan murgiltzeko egoeretan.
- Irakasleak prestatzeko planak diseinatzea, beren hizkuntza-gaitasuna hobetu dezaten eta hizkuntzen irakaskuntza- eta erabilera-prozesuetan behar dituzten trebetasunak eskura ditzaten hizkuntzan murgiltzeko ingurune eleaniztunetan.
- Ikastetxeen eta hezkuntza-arloko profesionalen sarea antolatzea eta koordinatzea, eremu horretan ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak eskualdatzea sustatzeko.
- Ikastetxeko eremu guztietan euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea, ingurune eleaniztun batean denok aberasteko balio partekatu gisa.
- Ikastetxeen, administrazioen eta inguruko elkarten arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, euskararen erabilera, euskal kultura eta kultura-antzasuna hedatzeko programak bultzatze aldera.
- Irakasleen hizkuntza-, didaktika-, eta metodologia-gaikuntza diseinatzea, atzerriko hizkuntzak irakasteko eta horien erabilera sustatzeko, bai eta hizkuntza-egiaztapenerako ere.
- Ikasleei atzerriko hizkuntza bat eremu informal eta ludikoetan erabiltzeko aukera emango dieten jarduerak bultzatzea, hizkuntza horretan ahozko komunikaziorako gaitasuna hobetzeko.
- Material pedagogiko berritzaileak diseinatzea, batez ere euskarri digitala dutenak, irakasleei ingurune eleaniztun eta kulturantzun batean hizkuntzen irakaskuntza- eta erabilera-prozesuetan laguntzeko.
- Gure unibertsitateekin lankidetzan aritzeko espazioak garatzea, hizkuntzak bereganatzeko eta erabiltzeko prozesuen esparruan ikerketa- eta berrikuntza-programak ezartzeko.
- Ikastetxeei prestakuntza, aholkularitza eta laguntza ematea, gure sisteman sartu berri diren ikasleei eta familia atzerritarreko ikasleei hezkuntza-sisteman sartzea eta egotea ahalbidetzeko jarduerak gauza ditzaten, bai eta, jatorrizko kulturak aintzat hartuta, beren hizkuntza-aurrerapena, aurrerapen akademikoa, pertsonala eta profesionala ahalbidetzeko ere.



II. ERANSKINA BAREMATZEKO IRIZPIDEAK

1. Esperientzia: 6 puntu gehienez.

- a) Lan-esperientzia izatea Hezkuntza Saileko irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetan (Berritzegune, Ingurugela, ISEI-IVEL...): 2 puntu gehienez.

0,10 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

- b) Esperientzia izatea ikastetxeetako zuzendaritza-taldeetan. 2 puntu gehienez

EAEko, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Administrazio-baimena duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan eta a) atalean aipatutakoak ez diren erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

- c) Hezkuntza saileko irakaskuntza-arlokoak ez diren eta eskatzen den lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan esperientzia izatea. 1 puntu gehienez. (Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,10 puntu).
- d) Eskatutako lanpostuaren esparruarekin zerikusia duten proiektuak dinamizatzen eta koordinatzen esperientzia izatea: 1 puntu gehienez. (Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,05 puntu).

2. Jasotako prestakuntza: 1 puntu gehienez.

Kontuan hartuko dira 10 ordu baino gehiagoko ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak, baldin eta zerikusia badute lanposturako eskatzen diren gaitasun espezifiko eta teknikoekin. Ziurtagiriek berariaz erakutsi behar dute ordu-kopurua, edo baliokidetasunen ebazpenean aipatuta egon behar du.

- 10-30 ordu bitarteko prestakuntza-jarduera bakoitzeko: 0,20 puntu.
- 31-50 ordu bitarteko prestakuntza-jarduera bakoitzeko: 0,40 puntu.
- 51 ordu baino gehiagoko prestakuntza-jarduera bakoitzeko: 0,60 puntu

3. Hizkuntzak: 1 puntu gehienez.

Atzerriko edo Estatuko beste hizkuntza ofizial batzuen ezagutza-maila egiaztatua baloratuko da:

- B2 (0,5 puntu),
- C1 (0,75 puntu),
- C2 (1 puntu).

Honako titulu edo ziurtagiri hauetako baten kopiaren bidez egiaztatuko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hizkuntza-eskola ofizialek emandako tituluak edo ziurtagiriak.
- Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean agertzen diren tituluak edo ziurtagiriak (2012ko maiatzaren 29ko EHAA).

4. Txostenengatik eta ikastaroak emateagatik: 1 puntu gehienez.

Kontuan hartuko dira ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak, baldin eta zerikusia badute lanposturako eskatzen diren gaitasun espezifiko eta teknikoekin. Hala badagokio, ziurtagiriek berariaz erakutsi behar dute emandako ordu-kopurua.



- Egiaztatutako 10 orduko: 0,20 puntu.
- Txosten bakoitzeko: 0,20 puntu.

5. Argitalpenak: 1 puntu gehienez.

Lanposturako eskatzen diren gaitasun espezifiko eta teknikoekin zerikusia duen argitalpen bakoitzeko.

- Egindako txosten bakoitzeko, 0,5 puntu.
- Egilekidea edo egile-talde bateko kidea bada, 0,25 puntu.

Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abenduarien 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatua) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.

6. Memoriaren ahozko defentsak: 8 puntu gehienez.

Izangaiek eskatutako lanpostuko gaitasun espezifiko eta teknikoetarako buruzko memoria defendatu beharko dute ahoz.

Memoriaren ahozko defentsan gutxienez 4 puntu lortzen ez dutenak prozesutik kanpo geratuko dira.

III. eranskinean ezartzen dira memoriaren ahozko defentsarako jarraibideak.

Memoriaren ahozko defentsan aintzat hartuko diren irizpideak:

- Izaera berritzailea:** Memoriak ez ditu jasoko soilik datuak edo besteen iritziak, balio erantsia eman beharko dio berrikuntzaren esparruari, hau da, dokumentazioaren eta hausnarketa pertsonalaren emaitza izango da.
- Lanpostuko gaitasun espezifiko eta teknikoetarako defentsarako edukiaren egokitzapena eta garapen orokorra:** Ezagutza eguneratu eta zorrotza, garapenean heldutasuna erakutsiz. Azaldutako kontzeptuak zehatzak eta egokiak izatea. Tesi eta argudioetan sakontzea. Kontzeptuzko akatsik ez egitea. Adibideak eskaintzea, lanketa pertsonala. Datuak esanguratsuak, zehatzak eta adierazgarriak izatea. Beste eremu batzuetako edukiekiko lotura.
- Helburu eta jarduketa-ildo nagusiak argi eta garbi identifikatzea:** Proposatutako helburu bakoitzaren azalpen argi, labur eta zehatza, eta lehentasuna ematea helburu horiek gauzatzeko sekuentziari, erabili beharreko metodologiari eta lan-planari.
- Ondorioak:** Memoriaren ekarpenak modu labur eta ordenatuan azaltzeko gaitasuna:
- Aipamen bibliografikoa:** Gaiarekin zerikusia duten planteamendu edo iritziak aipatzea, iturri eguneratuak eta erreferentzia bibliografiko egokiak eta eguneratuak ezagutzen dituela erakutsiz.
- Daukan denborara doitzeko gaitasuna:** Azaldu beharrekoa ezarritako denbora gainditu gabe laburbiltzeko gaitasuna.
- Erraztasuna azalpenean:** Ahoz azaltzeko gaitasuna, idatzizko materialekiko gehiegizko menpekotasunik gabe eta diskurtso arin baten bidez.
- Koherentzia azalpenean:** Modu ordenatuan azaltzea sarrera, aurrekariak eta lanpostuaren eremuko esperientzia, helburuak eta jarduketa-ildo nagusiak, lanpostuko gaitasun espezifiko eta teknikoetarako garapena, metodologiak eta lan-plana, ondorioak... Alderdi bakoitzari, garrantziaren arabera, denbora egokia eskaintzea.
- Material osagarrien kalitatea:** Aurkezpena hobetuko duten baliabide digitalak erabiltzea.
- Hizkuntzaren erabilera:** Lana defendatzeko erabiltzen den hizkuntza zuzentasunez eta arintasunez erabiltzen da, bai sintaxiari, lexikoari dagokionez, bai, oro har, aukeratutako



hizkuntza-erregistroari dagokienez. Erregistroak egokia izan behar du komunikazio mota horretarako.

- k. **Hitzik gabe komunikatzeko trebetasuna:** Ahozko komunikaziorako teknikak eraginkortasunez erabiltzea eta entzuleen arreta mantentzeko gaitasuna: entzuleei begiratzen die, bolumen egokia erabiltzen du, tonua modulatu du, ahozko mezua keinuen bidez indartzen du, diskurtsoan ez du erabiltzen hitz betegarririk...
- l. **Ebaluatzaileek egindako galderei edo adierazitako eragozpenei erantzuteko gaitasuna:** Jasotako iruzkin eta oharrekiko interesa erakustea, eta egiten diren galderei eta adierazitako eragozpenei trebetasunez eta zuzen erantzuteko gaitasuna.

7. Antzinatasuna irakasle gisa: 2 puntu gehienez.

- a) EAEko, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Antzinatasuna izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen kopiaren edo zerbitzu-orriaren bidez egiaztatuko da. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, ikastetxea publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat –zinpeko itzulpenaz– aurkeztea.

- b) Administrazioaren baimena duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

Antzinatasuna zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziak, edo, bestela, kontratuaren kopiaren bidez eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiriaren bidez, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.

GUZTIRA: 20 puntu



III. ERANSKINA

GAITASUN ESPEZIFIKO/TEKNIKOEN MEMORIA AHOZ DEFENDATZEKO JARRAIBIDEAK

1. Ahozko defentsa egiten hasi aurretik, izangaiak erabiliko duen euskarri digitalaren kopia bat emango dio balorazio-batzorde teknikoari.
2. Hautagaiak eskatutako lanpostuko gaitasun espezifiko eta teknikoari buruzko memoria defendatu beharko dute ahoz, honako egitura honi jarraikiz:
 - Sarrera
 - Lanpostuaren esparruko aurrekariak eta esperientzia
 - Helburuak eta jarduketa-ildo nagusiak
 - Hautagaiak egokitzat jotzen dituen gaitasun espezifikoak eta teknikoak garatzea.
 - Metodologia eta lan-plana
 - Ondorioak
 - Erreferentzia teorikoak eta bibliografikoak

Ez da beharrezkoa izango memorian ahozko defentsan gaitasun espezifiko eta tekniko guztiak garatzea; hau da, hautagaiak bere memoriaren defentsa gaitasun espezifiko eta tekniko bat edo batzuk garatzera bideratu ahal izango du.

3. Azalpenak 15 minutuko iraupena izango du gehienera. Bukatutakoan, balorazio-batzordeak galderak egin edo jarduerak eskatu ahal izango dizkio izangaiari, azalpenaren edukiarekin lotuta; debate horrek ez du hamar minutu baino gehiago iraungo.
4. Defentsa euskaraz egingo da.
5. Hautagaiak euskarri digital bat erabili beharko du memoria defendatzeko. Horretarako, ordenagailu bat, proiektagailu bat eta Internetarako konexioa izango ditu. Bere aldetik, hautagaiak egokitzat jotzen duen material osagarria erabili ahalko du.